

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ENERGIAREN ERABILERA ERAGINKORRAREN SUSTAPENA ERAIKINETAN	Iraupena	40
Kodea	MF1197_3		
Lanbide-arloa	ENERGIA ETA URA		
Lanbide-eremua	Energia-efizientzia		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eraikinen energia-eraginkortasuna	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Energia-efizientzia eraikinetako berokuntzaren eta ur bero sanitarioaren instalazioetan.	Iraupena	90
	Energia-efizientzia eraikinetako klimatizazio-instalazioetan.		90
	Energia-efizientzia barneko argien eta kanpoko argiztapenaren instalazioetan.		60
	Eraikinetako instalazioen mantentze-lanak eta hobekuntza.		60
	Etxegintza eta eraikinetako energia-efizientzia.		90
	Eraikinen energia-kalifikazioa.		60
	Eraikinetako energia-efizientziarekin lotutako programa informatikoak.		90
	Eraikinetako ur-hornidurako eta saneamenduko instalazio eraginkorrak.		60
	Eraikinetako ur-hornidurako eta saneamenduko instalazioen mantentze-lan eraginkorrak.		40
	Eguzki-potentziala zehaztea (zeharkakoa).		40
	Energia-premiak eta eguzki-instalazioen proposamenak (zeharkakoa).		80
	Eraikinen energia-efizientziako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak.		120

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1197_3: ENERGIAREN ERABILERA ERAGINKORRA SUSTATZEA

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA
Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Energia-efizientziako planetan proposatutako informazioko eta dibulgazioko ekintzak aztertzea, plana garatzeko beharrezkoak diren espezifikazioak erabakitzearen.

EI1.1 Kontsumitzaileei, auzo-elkarteei eta jendeari, oro har, zuzendutako informazioko eta dibulgazioko ekintzen testuingurua, hartzailearen profila, iraupena, erreferentziako gaiak, kostua eta bestelako espezifikazio orokorrak (efizientzia-planetako eskakizunei eta gomendioei erantzuteko beharrezkoak direnak) erabakitzea.

EI1.2 Adituei, profesionalen elkarteei eta sektoreko enpresa nahiz elkarteei zuzendutako informazioko eta dibulgazioko ekintzen testuingurua, hartzailearen profila, iraupena, erreferentziako gaiak, kostua eta bestelako espezifikazio orokorrak (efizientzia-planetako eskakizunei eta gomendioei erantzuteko beharrezkoak direnak) erabakitzea.

EI1.3 Informazioko eta prestakuntzako ekintzei buruzko txostenak eta proposamen orokorrak egitea, ekintza garatzeko beharrezkoak diren espezifikazio orokorrak biltzen dituzten dokumentu formalizatuak aurkeztea eta, horretarako, aplikatu beharreko programa informatikoak eta euskarriak erabiltzea.

A2: Efizientziarekin eta ingurumenarekin lotutako araudiari eta kontsumo-ohitura arduratsuei buruzko informazioko edo prestakuntzako ekintzak programatzea kontsumitzaileei, enpresei eta erakundeei zuzenduta.

EI2.1 Informazioko edo prestakuntzako ekintzarekin zer helburu lortu nahi den definitzea, efizientzia-planaren eskakizunak, energiaren zentzuzko erabilerari buruzko gomendioak, aplikatu beharreko araudia eta hartzaileen eskari nahiz ezaugarriak kontuan hartuta.

EI2.2 Ekintzaren edukiak zehaztea, sekuentziatzea eta programatzea, eta informazioa, material didaktikoak eta horiek garatzeko beharrezkoak diren bestelako euskarriak biltzea.

EI2.3 Erabiliko diren komunikazioko eta prestakuntzako metodoak programatzea eta justifikatzea eta ekintzaren garapen-sekuentziarekin lotzea, behar izango diren baliabideak zehaztuta.

EI2.4 Galde-sortak, inkestak eta ekintzaren ebaluazioarekin lotutako bestelako tresnak diseinatzea.

EI2.5 Energia-efizientzia eta kontsumo-ohitura arduratsuak sustatzearekin lotutako ekintzen hedapena programatzea.

A3: Kontsumitzaileei, profesionali, enpresei eta erakundeei informazioa eta prestakuntza ematea, aurrez definitutako espezifikazioekin, metodologiarekin eta ezarritako aurrekontuarekin.

EI3.1 Eraikinetako instalazioetan energia-efizientzia handiagoa lortzeko estrategiak eta teknika orokorrak beste pertsona batzuei komunikatzea, argi eta modu ordenatuan, eta sortzen diren zalantzei eta galderei erantzutea.

EI3.2 Eraikinetako instalazioetan energia-efizientzia handiagoa lortzeko estrategiak eta teknika zehatzak (dagozkien jardun-eremukoak) profesionaleri eta espezialisterei azaltzea, argi eta modu ordenatuan, eta sortzen diren zalantza eta galdera espezifikoei erantzutea.

EI3.3 Informazioko eta prestakuntzako esku-hartze mota bakoitzerako baliabide material eta didaktiko egokienak sailkatzea eta hautatzea.

EI3.4 Espezializaziorik gabeko profila duen jende-multzoko baten aurrean, hau da, etxebizitza-erakin batean, ospitale-instalazio batean, kiroldegi batean edo bestelako eraikinetan energia-instalazioen jabe edo erabiltzaile direnen aurrean egindako informazioko esku-hartze batean:

- Eraikinetako instalazioetan egin den energia-diagnostikoaren eta -auditoriaren berri ematea erabiltzaileei edo kontsumitzaileei.
- Planean bildutako energia-instalazioen funtzionamendu orokorra azaltzea, modu sinplean.
- Erabiltzailearen jardunaren puntu kritikoak aztertzea, efizientzia hobetzearren.
- Egoera, helburuak eta pertsonen profila kontuan izanik, baliabide material eta didaktiko egokiak erabiltzea.
- Sortzen diren galderei argi eta garbi erantzutea.

EI3.5 Eraikinetako energia-instalazioen muntaketan eta mantentze-lanetan parte hartzen duten profesionalen aurrean egindako informazioko edo prestakuntzako esku-hartze batean:

- Lanen xede izango den eraikinetako instalazioetan egin den energia-diagnostikoaren eta -auditoriaren berri ematea.
- Energia-aurrezkiaren funtsa azaltzea proposatzen diren jardun teknikoetan oinarrituta.
- Esku-hartze teknikoaren ezaugarriak aztertzea.
- Egoera, helburuak eta profesionalaren profila kontuan izanik, azalpenerako baliabide egokiak erabiltzea.
- Sortzen diren galderei argi eta garbi erantzutea.

A4: Kontsumitzaileei edo profesionaleri zuzendutako informazioko edo prestakuntzako ekintzak ebaluatzeko ereduak eta tresnak diseinatzea, energiaren erabileran efizientzia lortzearekin loturik.

EI4.1 Ebaluazioko eredu edo plan bat idaztea, esku-hartze mota bakoitzaren arabera.

EI4.2 Ebaluazio-plana gauzatzeko beharrezkoak diren erremintak eta tresnak diseinatzea eta galde-sortak, ebaluazio-orriak, sareko ebaluazio-sistemak edo bestelakoak prestatzea.

EI4.3 Ebaluazioaren emaitzak interpretatzea eta ekintza zuzentzaileak proposatzea, hobetzeko.

EI4.4 Ebaluazioaren erremintak, tresnak eta emaitzak formalizatzea helburu orokorreko aplikazio informatikoak erabilita.

Edukiak

1. Energia-efizientziari buruzko dibulgazio-planak

- Energia-efizientziari buruzko plan nazionalak. Dibulgazio-neurriak.
- Energia-efizientziari buruzko komunikazio-kanpainak.
- Premiak eta eskariak bat etortzea.
- Prestakuntza-planak.
- Ikastaroen eta informazio-saioren espezifikazioak.
- Saiok eta ikastaroak antolatzea.
- Liburuxkak eta bestelako dibulgazio-sistemak.

2. Energia-efizientziari buruzko dibulgazio-ekintzak

- Gune eta instalazio egokiak.
- Baliabide didaktikoak.
- Esku-hartze metodoak.
- Hartzaileen profilak.

3. Energia-efizientziari buruzko dibulgazio-ekintzen ebaluazioa

- Ebaluazio-ereduak.
- Tresnak.
- Ebaluazio zuzentzailea.
- Emaitzen txostenak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eraikinen energia-eraginkortasuna.